

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIAREN URRIAREN 22KO 1362/2021 EBAZPENAREN BIDEZ, ERIZAINEN KATEGORIAN TXANDA IREKIKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA OINARRI OROKORREN 16.6 ATALEKO DESTINO-ESLEIPENA ARGITARATZEN DIRA, DESTINOA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU-ERAKUNDEETAN IZANIK.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko 2016an eta 2017an deitutako hautaketa prozesuen oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko 28. zk. EHAAan argitaratu ziren).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren otsailaren 7ko 125/2018 Ebazpenaren bitartez, Diplomatu Sanitarioen lanbide taldeko Erizainen kategorian lotura estatutarioa lortzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoak onartu ziren, kategoria horretako destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun zerbitzuetan izanik. (2018ko otsailaren 15eko EHAA 33. zk).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren urriaren 22ko 1177/2020 Ebazpenaren bidez, hautatutako hautagaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena argitaratu ziren, Erizainen kategoriako txanda irekikoena, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen zerbitzu-erakundeetan izanik (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen web orrian argitaratu zen, 2020ko urriaren 23an).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren urriaren 22ko 1179/2020 Ebazpenaren bitartez, I. eranskinean jasota dauden txanda irekiko esleipendunak langile estatutario finko izendatzen dira, Erizainen kategoriari dagokionez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik (2020ko azaroaren 2ko EHAA 216. zk.).

Lanpostuaz jabetzeko ezarritako epea amaituta, barne sustapeneko izangaiei oinarri orokorretako 16.7 oinarrian aurreikusitakoaren arabera destinoak eskainiko zaizkie.

Oinarri orokorretan xedatutakoa aplikatu beharko zaio destinoen esleipen- eta hautapen-prozesu honi; betiere, barne sustapeneko txandan parte hartzen dutenen artean eta lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera eginez esleipena.

Ezin izango zaie atal honetan eskainitako destinorik esleitu, baldintzak bete arren destino guztiak ez aukeratzeagatik aurreko fasean destinorik lortu ez dutenei.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarreko legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

EBATZI DUT

Lehena.- Erizainen kategoriako txanda irekiko izangai hautatuen behin betiko zerrenda eta oinarri orokorren 16.7 ataleko destino-esleipena Osakidetzaaren web orrian argitara dadila agintzea, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik.

Ebazpen horretan bi eranskin daude: I. eranskinean, esleitutako destinoen zerrenda ageri da, eta II. eranskinean, izangai horien puntuazioak.

Bigarrena.- Aurreko paragrafoan aipatutako Ebazpenaren I. eranskinean ageri diren izangaiak pertsonal estatutario finko izendatuko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Osakidetzako zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez.

Ebazpen horretan, lanpostuaz jabetzeari eta lanean hasteari buruzko informazioa dago.

Hirugarrena.- Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoan oinarrituta, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar dakiokete Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 22an.



Iz.: María Rosa Pérez Esquerdo

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA

RESOLUCIÓN 1362/2021, DE 22 DE OCTUBRE, DE LA DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE PROCEDE A LA PUBLICACIÓN DE LA RELACIÓN DEFINITIVA DE ASPIRANTES Y LA ADJUDICACIÓN DE LOS DESTINOS DEL APARTADO 16.6 DE LAS BASES GENERALES, DEL TURNO LIBRE, EN LA CATEGORÍA DE ENFERMERA/O CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.

Mediante la Resolución 103/2018, de 5 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud convocados en los años 2016 y 2017. (BOPV n.º 28, de 8 de febrero de 2018).

Mediante la Resolución 125/2018, de 7 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases específicas que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Enfermera/o del grupo profesional de Diplomados Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud. (BOPV n.º 33, de 15 de febrero de 2018).

Mediante la Resolución 1177/2020, de 22 de octubre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se procede a la publicación de la relación definitiva de personas aspirantes seleccionadas y la adjudicación de destinos por el turno libre en la categoría de Enfermera/o con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud (publicada en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud el 23 de octubre de 2020)

Mediante Resolución 1179/2020, de 22 de octubre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se procede a la publicación del nombramiento como personal estatutario fijo, de las personas adjudicatarias incluidas en el anexo I por el turno libre en la categoría de Enfermera/o con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud (BOPV n.º 216, de 2 de noviembre de 2020).

A las personas aspirantes por el turno de promoción interna una vez finalizado el plazo de toma de posesión, se les ofertarán los destinos que resulten de acuerdo con lo previsto en la base 16.6 de las bases generales.

A este proceso de elección y adjudicación de destinos le serán de aplicación las previsiones contenidas en las bases generales, adjudicándose entre las personas aspirantes que participen por el turno de promoción interna y por el orden de puntuación alcanzada.

No podrá adjudicarse destino de los ofertados en este apartado a quienes no habiendo elegido todos aquellos para los que cumplían el requisito exigido, no hubiesen obtenido destino en la fase anterior.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

RESUELVO

Primero.- Ordenar la publicación en la página web de Osakidetza de la relación definitiva de aspirantes y la adjudicación de los destinos del apartado 16.7 de las bases generales, del turno libre, en la categoría de Enfermera/o con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Dicha Resolución contendrá el anexo I que constituirá los destinos adjudicados y el anexo II que contendrá la puntuación de las personas aspirantes.

Segundo.- Mediante Resolución de la Directora General de Osakidetza, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, se efectuará el nombramiento como personal estatutario fijo de las personas aspirantes incluidas en el anexo I de la Resolución citada en el párrafo anterior.

Dicha resolución contiene la información relativa a la toma de posesión e incorporación.

Tercero.- Al amparo de lo establecido en el apartado 21 de las bases generales que rigen el proceso selectivo, contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en la pagina web de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2021.

Fdo.: María Rosa Pérez Esquerdo

DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD

